

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 266. zenbakia. 2018ko apirila



Euskararekin konpromezua





**Ignacio
Zuloaga
Institutua**



Aurrematrikula maiatzaren 2tik 14ra



ATE IREKIAK
maiatzaren 3an
18:00etan



Jardiñeta 3 Eibar . Tel.: 943208349 . Fax: 943206048 www.ignaciozuloaga.net E-mail: 012055aa@hezkuntza.net

IZEN EMATE EPEA ZABALIK
Apirilaren 30etik maiatzaren 11ra,
0 eta 2 urte bitarteko umeentzat
Irailan, urrian eta azaroan hasteko



**Ekainean
ATE IREKIAK
berriro ere**

Hurrengo matrikulak:

URRIAN: abenduan, urtarrilean edo otsailean hasteko.

URTARRILAN: martxoan, apirilean, maiatzean edo ekainean hasteko.

ERMUKO HAURRESKOLA
Iparragirre, 15 (Antzoki parean)
943 17 64 31
ermua.ermua@haurreskolak.eus

Haurreskolak

www.haurreskolak.net



ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Dorleta Vidal,
Estibalitz González
eta Ekhi Velar.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Ekhi Velar.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Ekhi Velar.

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Valentin Mugarza,
eta Jabi Vidal.

ARGAZKIAK:

Ainhoa Lista,
Mallabi eskola,
Orihen,
Jasokunde abesbatza,
Aiuri,
Eitzaga Xtrem,
Ermuko Udala,
Estibalitz González,
Valentin Mugarza,
Jabi Vidal
eta Ekhi Velar.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainitze Antxia, Piedi
Eizagirre eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Artajorrara (Entzuteko: www.alboka.es)

Artajorrara noa
luberrri berrira,
bedarra jorratuta
artua sasira.

Hankak arinak eta
burua arinago,
dantzan hobeto dakit
artajorrara baino!



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4 Ainhoa Lista (Italia)	KIROLZALE17 Motorren gaineko pasio goiztiarra
ELKARRIZKETA5-7 Orihen musika taldea	ESKOLEN TXOKOA18 Mallabiko eskolako albisteak
MALLABIAN ZER?8-9 Jasokunde abesbatzak 25 urte	IRITZIA19 Ertzak
ERREPORTAJEA10-11 Ermuan Bagara, hiru egunez euskaraz	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER?14-15 Aiuri Antiespezista Taldea	ZORION-AGURRAK.....21 Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN16 Bookcrossing, 47 liburu kaleetan solte	MAIATZEKO AGENDA .22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Ainhoa Lista

Modaren hiriburua da Milan. Estiloa nagusi omen den hirian, ordea, hiri arrunt bat aurkitu du Ainhoa Listak, beste edozein hiri moduko tokia. Poliki-poliki italierekin trebatu da eta hango izozkiak ikaragarri gustatzen zaizkio, baina hilabete darama kafea dastatu gabe, lehenengo egunean kafe batengatik 5 euro ordaindu eta gero. Maiatzaren 30ean itzuliko da etxera, baina abenturaz gozatzen jarraituko du bitartean... eta izozkiak jaten!

- *Noiz joan zinen Milanera? Zer dela eta?*

2018ko otsailaren 2an hasi nuen abentura hau. Gizarteratzeko ikasketak burutzen nenbilen bitartean praktikaldia kanpoan egiteko proposamena azaldu zidaten, eta ondo pentsatu eta gero, Curriculumerako eta bizitza propiorako esperien-



tzia ona izango zela konturatu nintzen. Beraz, bidaia honetan murgildu nintzen.

- *Erabaki erraza izan zen?*

Hasieran erabaki oso erraza iruditu zitzaidan, baina egunak pasa ahala zalan-tzak eta beldurra sentitzen hasi nintzen.

- *Nola imajinatzen zenuen leku hura? Aurreiritzirik zenuen? Bete dira itxaropen horiek?*

Milanen, moda oso esanguratsua denez, dena oso dotore imajinatzen nuen, baina heltzerakoan edozein hiri modukoa zela ikusi nuen.

- *Nola moldatzen zara hizkuntzarekin han?*

Lehenengo egunak gogorrak izan ziren, italiara ez da hain erraza. Aste betez italiarazko klaseak jaso nituen eta zertxobait ikasi nuen, baina egunak aurrera egin ahala gehiago ikasten dut.

- *Nolakoa da zure bizimodua han?*

Ordu batetatik seiak arte lanera joan beharra dut. Institutu batean egiten dut lan ikasteko arazoak dituzten umeekin.

Beraz, goizak hiria ezagutzeko erabiltzen ditut eta arratsaldeetan lagunekin zerbait hartzera joaten naiz.

- *Hemengoarekin alde handia dauka?*

Bai, herri txiki batean bizitzera ohituta nagoenez, hiri handi batean bizitzea arraroa iruditzen zait. Gainera, ezezagunekin bizikidetzatza hasieran zaila da, baina hasieran bakarrik.

- *Zer da gehien gustatu zaizuna?*

Hiri desberdinetako jende asko ezagutzeko aukera oso ona da eta autonomia pertsonala sustatzeko. Eta Italiako izozkiak... uff! gozoegiak!

- *Eta gutxien?*

Milanen bizitza oso garestia da, heldu ginen lehen egunean 5 euro ordaindu behar izan genituen kafe bat hartzeagatik. Beraz, hilabete oso bat daramat kafea dastatu barik.

- *Zerbait botatzen duzu faltan?*

Familia, lagunak eta gurasoen bazkari gozoak izugarri botatzen ditut faltan!

EKHi Velar

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**AMAIA
HARATEGIA**

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen



Orihen

Aro berri baten lehen notak

Hasierako jarduera frenetikoaren ostean erritmoa lasaitu zuen Orihenek, baina martxa betean da berriro. Hirugarren lana argitaratu berri du Ermuko musika-taldeak, 'La última canción', eta taldekideen esanetan, abesti landuagoak aurkeztu dituzte. Rock eta metal doinuetatik hardcore-melodikora pasa direla diote eta taldekide berria daukate baterian Unai Mikelen tokia hartu eta gero. Kritiken onspena jaso du azken lanak eta maiatzean egingo den Vertigo Rocken zuzenean jotzeko asmoa daukate. Buru-belarri dabilta entseiatzen eta uda ostean bira hasteko gogoz daude.

e|k|o|r|r|i|z|k|e|t|a

- Zuen hirugarren lana argitaratu duzue eta dagoeneko zuen webgunean oso-osorik dago entzungai. Zergatik erabaki duzue diskoa interneten eskegitea?

Cillo: Lehenik bi 'single' kaleratu genituen eta gero CD-a argitaratu genuen. CD-a kaleratu eta gero interneten jartzea ez da oso ohikoa gaur egun, alderantziz jokatu ohi da, baina guk horrela egin dugu. CD-a atera eta astebetara igo genituen abestiak internetera, eta gero bideoklipa ere publikatu genuen.

- Diskoak saltzea ia ezi-nezkoa da gaur egun?

Moshky: Jendeak zure abestiak entzuteko beste modu bat da interneten doan jartzea, eta horrela zure musika gehiago zabaltzen da.

Unai: Publikoarengana heltzeko modu efektiboagoa da.

Cillo: Gure helburua ez da CD-ak saltzarekin dirua

irabaztea (eta ez dakigu ahal izango genukeen), talde handiek ere irabazten ez dutelako. Ahalik eta jende gehienarengana heltzea da garrantzitsuena guretzat. Orain arte nahiko ondo joan zaigu modu horretan eta hobeto joatea espero dugu.

- Bideoklipa egiten duzuen lehen aldia izan da?

Andoni: Bideoklipa baino lyric-bideoa da. Gu ez gara bertan irteten, artxiboko irudiak hartu eta horren gainean gure musika jarri dugu.

- Diskoa argitaratu osteko euforia pasatu eta gero, zer?

Cillo: Momentu arraroa bizi dugu orain. Diskoa publikatu eta gero kontzertuak eskaintzen hasi ohi zara, baina gu ez gaude egoera horretan. Mikel bateria-joleak taldea utzi zuen grabatzen genbiltzanean eta grabaketa amaitu arte ez genuen inor hartu. Gero Unai sartu zen, eta orain

“Disko berriak abesti landuagoak ditu”

asko entseiatzen gabiltza erritmoa hartu eta pare bat hilabetetan zuzenean jotzeko, udara begira batik bat.

- Diskoa argitaratu berri duzue, baina dagoeneko kritika onak jaso ditu. Nola hartzen dituzue?

Moshky: Oilo ipurdia jartzen zait horrelako kritikak entzutean. Diskoa asko gustatzen zitzaigula eta diskoa sortzen ordu asko sartu genituela bagenekien. Andoni ibili da buru-belarri lanean batez ere, soinu-teknikari moduan egon delako. Publikoari gustatuko zitzaioala pentsatzen genuen eta kritikek hori berretsi dute.

Cillo: Hainbat zalantza genituen, grabazioa gure lokalean egin dugulako, ez estudio batean.

Andoni: Diru-inbertsioa minimoa izan da eta denbora-inbertsioa maximoa.

Cillo: Hori egia izanik, argitaratu ditugun diskoen artean soinu onena duena da, zalantzarik gabe. Diskoa entzun dutenek ere horixe esan digute.

- Hiru urte pasa dira azken diskoa kaleratu zenuenetik. Jendea lan berriaren zain zegoela sentitzen zenuen?

Moshky: Bai, niri esan izan didate disko berriaren zain zeudela. Horrek bul-tzada handia ematen digu.

Andoni: Zuzenean noiz joko dugun zain daude beste asko.

Cillo: Ni nahiko ipurterrea naiz eta 7-8 abesti ditugunean grabatzeko gogoz egoten naiz. Egia esan, oso indartsu hasi ginen. 2013. urtean gure ibilbideari ekin genion eta pare bat urtetan 50 kontzertu inguru eskaini genituen, maketa eta diskoa grabatu genituen... Ordu mordo sartzen genituen lokalean entseiatzen. Gorputzak atsedena behar du, agian ez guk hartu dugun beste, baina burua garbitu behar da gauza berriak egiteko. Hiru urte asko dira, baina disko berriari izenburua ematen dion ‘La última canción’ abestia dagoeneko jotzen genuen azken kontzertuetan.

- Grabatzea behar zenuen, beraz?

Cillo: Nahiz eta musika talde amateurra izan, pentsatzen dut talde guztiek euren lanak grabatu behar dituztela. Lanak argitaratzea, jendeak entzutea eta euren iritzia ematea beharrezkoa dela uste dut. Nik abestiak idazten ditut eta demaseko liberazioa sentitzen dut abestiak publikatzean.

Moshky: Lan asko egin eta gero zure sorkuntza gailera horretan grabatuta egotea beharrezkoa da. Bizitza oso rako zerbait da.



HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
 2012ko BILBOKO
 TXORIZO TXAPELLETAN
 BIZKAIKO
 TXAPELDUNAK
 PROBLEMA 3-945170563
 ERMUA

Drogeteniturrri, 266 zk.

ZERMIK
 SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
 DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
 ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
 Usaetxe plaza 6-8, behea
 Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)
 Telf: 943 23 10 12



- *Esan duzuen bezala, aldaketa eduki duzue baterian. Taldearen estiloa ere aldatu dela esango zenukete?*

Moshky: Baietz esango nuke. Disko berriak abesti landuagoak dituela esango nuke. Aldaketa handia dago disko batetik bestera. Hardcore-melodikora jotzen du disko berriak, aurrekoak ordea, rock eta metal doinuak zituen.

Cillo: Egia da, baita ere, jendeak gure musika identifikatzen duela eta hori oso garrantzitsua da.

- *Zein da Orihenen esentzia?*

Cillo: Lagun talde baten moduan hasi ginen ondo pasatzeko eta gauzak egiteko asmoarekin, beste barik, eta egin genituen. Momentu batean taldekide bakoitzak bere aldera jo zuen eta txarto pasatu genuen, ez genekielako zer egingo genuen.

Moshky: Lanak asko nekutzen du eta atsedena hartzea lan egitea bezain garrantzitsua da. Lokalean sartzea eta hankak geldituko dizkizun inor ez edukitzea ez da oso ona.



“Taldekideekin furgonetan kontzertuak eskaintzera joateak duen xarma demasa da”

Cillo: Hasierako izpiritua berreskuratu dugula pentsatzen dut. Gauza serio eta duin bat egiteko ez zara gauza horren esklabu izan behar.

Unai: Gozatzeko asmoarekin gaude hemen. Kontraesana dirudi, baina gauzak hobeto egin eta gehiago lantzen dituzun heinean, gehiago gozatu ahal duzu. Zuzenekoetan, adibidez, urduritasun gutxiagorekin jotzeko aukera duzu aurretiko lana ondo eginda badago. Gainera, esperientzia eta praktikaren bitartez lortutako eboluzioa ikusten du taldekide bakoitzak eta, era berean, taldearen eboluzioa ere antzematen da. Horrek guztiak poz handia ematen du eta oso garrantzitsua da.

- *Taldea sortu zenutenean gaur egungo egoera imajinatzen zenuten?*

Moshky: Nik ez. Taldeak gutxiago iraungo zuela pentsatzen nuen, momentuko zerbait izango zela usate nuelako. Proiektu honen, ni behintzat, lotu egin nau.

Cillo: Taldekide bakoitzak beste musika-talde nagusi bat zeukan. Orihen ez zen denbora-pasa, baina bai bigarren mailako zerbait. Gaur egun, ordea, Orihen da nire talde bakarra eta %100ean nago bertan.

- *Eta besteok?*

Moshky: Batzuk bi taldetan gaude, beste batzuk bost taldetan... Storbais taldeko kidea naiz eta 25 urte beteko ditugu ekainean. Talde aktiboa da, baina Orihenek harrapatu egiten zaitu.

Unai: Nik ere badaukat lagun artean sortu genuen beste talde bat. Orain dela 12 urte hasi ginen, baina nahiko ezegonkorra da. 2015ean diskoa grabatu genuen, baina hamar urte ezer grabatu barik egon ginen eta zortzigarren urtean antsietateak jota negoen ezer kaleratu ez genuelako.

- *Kontzertuen agenda zehaztu duzue?*

Cillo: Vertigo Rockeko aurkezpenera heltzea espero dugu, eta gero jaietan ibiltzeko asmoa daukagu. Uda ostean ibiliko gara buru-belarri kontzertuetan. Agian ez dugu aurreko urteetako kontzertu kopuru handia eskainiko, baina prestatuko dugu zerbait. Gainera, kanpora joatea oso gustuko dugu.

Moshky: Taldekideekin furgonetan kontzertuak eskaintzera joateak duen xarma demasa da.

Cillo: Nik ezin dut ulertu musika-talde bat entsegu, CD eta kontzerturik gabe.

Ekhi Velar

MALLA
ileapaindegia

Probaleku 8, behea © 943 17 18 50

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

ARRIETA CORDEVI


Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

25 urteko zorion kantua

Jasokunde abesbatzak 25 urte bete ditu eta, urteurrena ospatzeko, argazki-erakusketan antolatu du Mallabiko Hamabostaldi Kulturalaren barruan. Argazkiak, bideoak, komunikabideetako albisteak, arropak eta oroigarriak, izango dira bertan, besteak beste. Maritxu Rotetaren zuzendaritzapean eman zituen lehen pausoak abesbatzak, eta Agurtzane Mentxaka, Uxue Alonso, Esther Fernández Iratxe Uribelarrea etorri ziren gero. Hemen dituzue 25 urte hauek utzi dizkiguten argazki batzuk. ZORIONAK!





uriarte asesores ✓
 Aholkularitza fiskala
 eta lege aholkularitza
 Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197
 48260 · Ermua · Bizkaia



PUB YOMY
 Zubiaurre
 kalearen
 bihotzean

Hiru egunez euskaraz bizitzen

Ermuan euskara sustatzeko helburuarekin sortutako ekimena da Ermuan Bagara eta, azken urteotan egindako lana azpimarragarria bada ere, aurten beste aurrerapauso bat emateko egitasmoa jarriko du herritarren esku maitzean. ‘Ermuan Bagara, hiru egun euskaraz’ goiburua ondo azaltzen duen moduan, herrian hiru egunez euskaraz aritzeko ariketa soziala egingo da, Euskaraldian hamaika egunez Euskal Herrian egingo den jardueraren mokadutxo.

Ermuko Euskaltzaleen Taldea buru-belarri dabil euskararen alde lanean azken hilabeteotan. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra Euskal Herri osoa euskaldunduko duen Euskaraldia ekimen ezagunaren apustua jaso eta gero, horren harira Ermuan egingo diren dinamika eta ekintzak prestatzen dabilta euskaltzaleak. Erronka handia da, baina baita egiteko go-goa ere, eta orain arte euskararen alde egindakoari beste buelta bat eman nahi izan diote aurten.

Ermuan Bagara eta Euskaraldia 16 urtetik gorakoentzat zuzendutako ekimenak dira eta, hori kontuan hartuta, maitza-

ren 25etik 27ra egingo diren ekintzen dinamikak moldatu eta egokitu dituzte. “Beti pentsatu izan dugu umeek ekarriko zutela aldaketa, baina umeek erreferenteak behar dituzte, eurak imitatuz hazten baitira. Beraz, erreferente horiek aldatzen saiatuko gara, umeak giro horretara egokitzeko”, adierazi digu Unai Rodriguez Ermuko Euskaltzaleen Taldeko kideak.

Euskaraldiaren barruan azaroan eta abenduan egingo den bezala, ‘Ermuan Bagara, hiru egun euskaraz’ ekimenak herrian hiru egunez euskaraz bizitzeko aukera, erronka edo esperientzia eskainiko die herritarrei. Horretarako, aurrerago azalduko diren AHOBIZI eta BE-



LARRIPREST figurak erabiliko dira, eta hainbat ekintza egingo dira maitzaren azken aste-buruan. “Herrian euskarazko jarduerak egiteko aitzakia dira ekintza hauek, baina garrantzitsuenak ez dira jarduerak, baizik eta ekintza hauek ekartzen dutena”.

Mota guztietako ekintzak

Maitzaren 25ean, ostirala, goizeko 9:00etan hasi eta maitzaren 27ko 20:00ak arte, mota ezberdinak ekintzak egingo dira euskaraz, herritarren parte-hartzea sustatzeko. Egutegia zehazteko dago oraindik, baina antolatzaileek aurreratu dutenez, kirol ekintzak,

dantzak, musika, mintzapraktikak eta hitzaldiak egingo dira, besteak beste, euskara nagusi izango den asteburuan. Ermuko herritarrek antolatutako ekintzak izango direla adierazi digute antolatzaileek, eta 25 elkarre inguru ibili direla egitarauaren sorkuntzan, “nahiz eta elkarre gehiago batuko diren”.

“Handia” filma (gaztelarazko azpitoluekin) maitzaren 26tik 28ra eta 27an ‘Leo Da Vinci, Mona Lisa misioa’ umeentzako pelikulen emanaldiak zehaztuta daude. Okupazioaren eta autogestioaren inguruko hitzaldia ere eskainiko da eta musikak garrantzia handia izango du asteburu horretan. Musika eskolak batukada egin-

Modas Cande
Candelaria Rueda

Diputación, 12 | 48260 ERMUA Bizkaia
T 665 703 904
modascande@gmail.com

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

ZK

ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL
LAN BABESERAKO
ORNIDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

go du, erromeria egongo da, Pispilu abesbatzak kantuz jantziko du herria, 25ean Ostera Be taldea arituko da, 26an Issuna eta Kokeinek kontzertua eskainiko dute eta, ondoren, Jon Saezek musika jarriko du.

Ekintza garrantzitsuenak maiatzaren azken astean egingo badira ere, hilabete osoan zehar izango da euskal giroa. Larunbatetan, 12:30etik 14:30era, postu informatiboa ezarriko da Zubiaurre kalean Ermuan Bagara eta Euskaraldiari buruzko nondik norakoak eskaintzeko, eta AHOBIZI eta BELARRIPREST moduan izena emateko aukera eskainiko da. Gainera, kamisetak eta agendak jarriko dira salgai. Maiatzaren azken astean egunero egongo da postu informatiboa eta 22tik 24ra AHOBIZI eta BELARRIPREST moduan izendatzeko txapak banatuko dira.

AHOBIZI eta BELARRIPREST

Ermuan Bagarako aurtengo edizioan AHOBIZI eta BELARRIPREST figurak jarriko dira martxan eta, moduren batean, Euskaraldirako proba bat izango da. Ekimenean parte hartzen dutenek figura horiek adierazten duten konpromisoa hartu beharko dute eta hipokresian ez erortzea eskatzen dute antolatzaileek. "Legitimitate so-

ziala lortzea da asmoa", azpimarratzen dute. Norberak hartuko duen erabakia izango da eta praktika maila indibidualeira eraman arren, lan kolektiboa izango da.

Unai Rodriguezek bi figura horien inguruko azalpena eman digu. "Askotan arazoak izaten ditugu AHOBIZI eta BELARRIPRESTak izendatzeko orduan. AHOBIZIak euskaraz ondo dakiten pertsonak eta BELARRIPRESTak euskaltegiatiko ikasleak izan behar dutela ematen du, eta hori ezeztatu nahi dugu". Bere berbetan, AHOBIZIak izango lirateke egunerokotasunean euskaraz hitz egiten dutenak eta hiru egun horietan euskarari eutsiko diotenak. Euskaldun petoak izan daitezke, baina baita hizkuntza ohiturak aldatu nahi dituzten euskaldun berriak ere, adibidez. "BELARRIPRESTak izan daitezke euskaraz ondo ez dakitenak, euskaraz hitz egiteko gai ez direnak (lotsagatik edo nahi ez dutelako, adibidez) edo euskaldun petoak izan arren, hiru egun horietan euren hizkuntza ohiturak aldatu nahi ez dituztenak (hau da, euskaraz oso ondo dakitenak, erabiltzen saiatuko direnak, baina ez dutenak bermatzen hiru egun horietan euskaraz dakiten guztiakin euskaraz egingo dutela)". Eurekin edonork euskaraz egitea ahal-



bidetuko dute BELARRIPRESTek, "eta modu positiboan hartuko dute gainera", eta euskaraz saiatuko dira erantzuten, ahal duten heinean. Hizkuntzarekin eroso egotea da BELARRIPRESTaren papera, eta AHOBIZIena jokabide urratzaileagoa izango da, hizkuntza ohiturak apurtzeko bidean. Beraz, AHOBIZIak eta BELARRIPRESTak gaitasun linguistikoekin lotzea ezabatu egin behar dela dio Rodriguezek. "Bakoitzak hartzen duen konpromisoa da gakoa, jakinda figura bakoitzak zer esan nahi duen. Ez dauka zerikusirik euskara mailarekin".

AHOBIZIak bezain garrantzitsuak dira BELARRIPRESTak: "Denok eroso egongo garen zelai bat behar dugulako euskara praktikatzeko". Figura biak ezberdinak ahal izateko, norbera AHOBIZI edo BELARRIPREST

moduan izendatzeko duten txapak banatuko dira. "Horrek ahalbidetuko du bata bestearengana aurreiritzi gabe joatea", Ermuko Euskaltzaleen Taldeko kidearen iritziz.

"Jendeak argi eduki behar du Ermua ez dela hiru egunetan guztiz euskaldun bihurtuko", azpimarratzen du Rodriguezek. Prozesu luzea izango dela iragartzen du eta herria euskalduntzeko bidean herritar gehienek gutxieneko ezagutza maila edukitzea garrantzitsua dela. "Gutxienez, ohiko elkarrizketa motzak mantentzeko ezagutza bat". Horretarako, hizkuntza ohituren garrantzia azaldu du, automatikoki irteten zaiguna delako, eta AHOBIZI eta BELARRIPRESTen ekintzaren bitartez ohitura berriak hartu eta lan hori erraztu nahi da.

Ekhi Velar

Ferreteria ANBOTO Burdindegia

Orain **KOTXEKO GILZEN KOPIAK** ere egiten ditugu

943 17 69 76 ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
607 33 11 77 www.ferreteriaanboto.es

Dejate QUERER
BERRIA ERMUA

Bitsi-denda Tailer propicia Edoju-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

hanigan's Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g. 943030527

CITROËN

AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14

TALAPARTA ABERNA

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!


Erdikokale 13 (Ermua)

ENKARGYAK
943 030 299

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE

 **Bainugelen erakusketa**
943 17 15 56

Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

PERTSIANAK
ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS



- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eitxo-sareak

Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ETXE-BIRGAITZEAK

 **BERRITZE LANAK**
ZURE ERAKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

 www.spara.es
Info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua-Bizkaia

ETXETRESNAK

 **Egaña**

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ELEKTRIZITATEA

 **BETA**

ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ERROTULAZIOA

 **ROTEK**
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea
C-1 partzela, 5 beheka (Mallabia)
T / F: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net


Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

“

**Auto baten xasis-a
3D inprimagailu baten
eraiki dugu.**

Nerea Sanchez Echezarreta

Errenteria. Prozesu Industrialetako
Ekoteknologien Ingeniaritza, 3. maila



**GOI ESKOLA
POLITEKNIKOA**

ARRASATE • APIRILAK 26

OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ORONA IDEO • MAIATZAK 5

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI • MAIATZAK 26*

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA
ZIENTZIEN FAKULTATEA**

ESKORIATZA • MAIATZAK 12

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

ARETXABALETAKO • MAIATZAK 12

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

**ENPRESAGINTZA
FAKULTATEA**

OÑATI • APIRILAK 28

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO • MAIATZAK 5

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

BIDASOA • MAIATZAK 17

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

**GASTRONOMIA ZIENTZIEN
FAKULTATEA Basque Culinary Center**

DONOSTIA • MAIATZAK 12

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

* Batxilergoko lehen mailan dauden ikasleei
zuzendutako ate irekia

ETORRIKO
ZARELA
JAKINARAZI!



902 110 436
www.mondragon.edu/prest

Aiuri Antiespezista Taldea:

“Gure borroka ez da mugatzen gizakiak ez diren animalietara”

Eibar eta Ermuko lagunek osatzen dute Aiuri Antiespezista Taldea. Joan den urteko irailean eratu zuten taldea eta urrian egin zuten lehen ekintza, Zine Foruma. Denbora honetan taldea hazi egin da eta hainbat ekintzen bitartez eragiten ari dira herriko jardunean eta herritarren artean. Eskilarapeko Ateneoan biltzen dira astean behin, eta euren Facebook eta Instagrameko kontuen bitartez edo aiuriantiespezista@riseup.net helbidera idatzita jarri ahal da edonor eurekin kontaktuan.

- Zer da antiespezismoa?

Hainbat korronte daude antiespezismoaren barruan, beraz, ez da erraza antiespezismoa zer den zehaztea. Espezieen aurka egiten den diskriminazioa da espezismoa. Gizaki moduan beste espezieetara erabilpen batzuk ditugu, eta euren nahi eta beharrak kontuan izan gabe erabiltzen ditugu. Zentzu horretan, txakurra eta katua asko maite ditugu, ukiezinak dira, eta beste animalia ba-

tzuk jan egiten ditugu eta euren azalekin janzen gara.

- Zein korronte jarraitzen du Aiurik?

Animalien ongizatearen aldeko mugimendua da ezagunena, Gobernu Kanpoko Erakunde handienek erabiltzen duten korrontea, baina gu korronte abolizionista lerrotatzen gara. Hau da, animaliak erabiltzeari guztiz uztea defendatzen dugu. Publiko handiari begira errazagoa da bestea erabiltzea, baina



horrek ez du animalien esplotazioarekin amaituko. Badago esaldi bat hori guztia ondo laburtzen duena: “Ez dugu kaiola handiagorik nahi, baizik eta kaiolak apurtu eta desagertaraztea”.

**- Nola sortu zenuten elkar-
tea?**

Antzeko ideologia geneu-

kan lagunak batzen hasi ginen eta ahoz aho eman zen taldearen berri. Talde handia bildu ginen eta, gure beharrak aztertu ostean, elkarte sortu genuen behar horiei erantzuteko. Hasieran ez genuen pentsatzen talde bat sortzeko adina indar edukiko genuenik.

esanline[®]

+ @ + TV + Smartphone

☎ 846 080 010
Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua
💻 esanline.es

BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU

SPARA
rehabilitación + sostenibilidad

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Erakina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua -Bizkaia-

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es

Horacio Decoración
VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

IZARRA CENTRE Erakina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua -Bizkaia-

- **Zein helburu zehaztu zenituzten taldea sortu zenute-nean?**

Hasteko, antiespezismoaren inguruan ideia eta kontzientzia zabaldu nahi dugu. Izan ere, gure inguruan ez daukagu erreferenterik. Era berean, beste animaliei egiten dizkiegun injustiziak azaleratzeaz gain, erantzun kolektibo bat ematen saiatzen gara.

- **Modu ohikoan animalien aurka egiten diren ekintzei alternatibak ematea?**

Guk ez ditugu alternatiba bezala planteatzen. Aukerak dauden momentuan alternatibak daude, baina aukera horiek beste norbanakoak zapaltzen dituzten momentutik guretzat ez dira alternatibak izango.

- **Munduaren funtzionamendua, gizartearen ohiturak eta abarrak kontuan izanda, zaila da antiespezismoa gailentzea?**

Zaila da, baina borroka guztiak dira zailak eta horrek ez dio legitimotasuna kentzen borroka bati. Errotik hartuta daukagun zerbait da espezismoa, euskal gizartearen oso barneratuta dago eta hori aldatzea oso zaila da. Hortaz, espezismoa zer den azaleratu nahi dugu, nahiz eta zaila den txikitatik hartu duzunaren

aurka egitea. Gure hezkuntza espezista da. Txakurrak eta katuak maitatzen erakusten digute, baina txerria jaten dugu. Nola apurtu horrekin? Zaila da, eta antiespezismoarekiko kontzientzia garatzen duzun heinean zure egunerokotasunean dituzun kontraesanak ohartzen zara. Taldea sortzearekin batera aldaketa sumatu dugu gertuko gizartearen denbora gutxian, eta onerako izan da.

- **Nolako ekintzak egin dituzue denbora honetan?**

Urriaren Zine Foruma eta taldearen aurkezpena egin genituen. Hezkuntza espezista oso barneratuta daukagu, naturala dela esaten digute, eta hainbat mito apurtzeko balio izan zuen Zine Forumak. Azaroan Ekintza Antiespezisten Nazioarteko astea ospatu zen eta kontzentrazioa eta difusio lana egin genuen. Sanmartinetan gure ekintza zuzen eta adierazgarriena egin genuen. Gure helburua ez da elikaduraren inguruko gauzak aldatzea bakarrik, beganoa izatea antiespezista izatearen ondorio logikoa delako; beraz, beste era bateko ekintzak beharrezkoak dira. Sanmartinetako txerriaren espazioa pankartekin inguratu genuen 'Ez da zer, norbait da' eta 'Animaliak ez dira produktuak' le-

loekin. Animalien interesak kontuan hartzen ez ditugula eta txerria toki txiki horretan sufritzen dagoela salatu nahi izan genuen. Gero, pintxo-pote beganoak egin ditugu, Gabonetan otar beganoak zozketatu ditugu, Zarata Gaua antolatu berri dugu, eta abar.

- **Ekintza horiez gain, nolako da taldearen jarduna?**

Astean behin Eskilarapekon batzen gara eta beti zerbait esku artean edukitzen dugunez, gauzak prestatzen egiten gara. Orain, barneko lanak egin behar dugu asanblada moduan egituratzeko. Horizontaltasuna dago gure printzipioen artean, baina horizontaltasun hori nola lortu landu behar dugu. Bestetik, hausnartzeko eta berba egiteko ere aprobetxatzen dugu, baina natural irteten da.

- **Beste talde edo kolektiboei elkarlanean zabilzate?**

Bai. Adibidez, Sagardo Egunean Gazte Asanblada gurekin kontaktuan jarri zen pintxopoterako txistorra beganoa egiteko eta Eibarko Libre Egunean jatekoa guk prestatuko dugu. Ez dugu elikaduran zentratu nahi, baina bada modu bat taldea ezagutarazi eta hortik gehiago sakontzen has-teko. Orokorrean beste taldeek ondo hartu dituzte gure

proposamenak. Badaude erresistentziak, baina talde askorentzat erabilgarria da jende gehiago edukitzea, esku gehiago lan egiteko, eta guk indarra daukagu. Guk planteamendu politiko bat eramaten dugu, baina horrekin batera laguntzeko eskuak ere. Gainera, talde moduan oso intersektionalak gara. Animalien askapena da gure helburua, baina beste borroka mota batzuk babesten ditugu eta, babesa emateaz gain, horrelako gauzak lantzen ditugu taldean. Adibidez, komisio ez-mistoa sortu dugu taldean eta emakumezkoak soilik batzen gara bertan. Bada, Eibarren egin zen Zarata Gauerako protokolo bat landu genuen erasoaren aurrean nola erantzuteko. Patriarkatua edozein tokitan dago presente eta Aiuri definizioz feminista izan ez arren, feminista da. Gure lanak animalien ingurukoa bakarrik dela eman dezake kanpotik, baina guk animaliatzat daukagu gure burua eta zentzu horretan, adibidez, guretzat ez da justua emakumeen aurkako indarkeria eta hori ere borroka antiespezistaren barruko ardatza da. Gure borroka ez da mugatzen gizakiak ez diren animalietara.

Ekhi Velar

mari asun 
LORADENDA
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

Caperos
Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

URRETA **burdindenda**

* Etxea	* Giltzak
* Tresneria	* Sarrailagintza
* Brikolajea	* Kit altzariak
* Ervailak	

 Beharkealea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

**EUSKAL BIRUSAREN
BATZAR OROKORRA
MAIATZAREN 21EAN**

Euskal Birusa Euskara Elkartek Batzar Orokorra egingo du maiatzaren 21ean Lobiano Kultur Etxean. Bi deialdi egingo dira, bata 18:45ean eta bestea 19:00etan. Gai ordenari dagokionez, iazko kontuak aztertuko dira, aurtengo aurrekontua argitaratuko da eta aurten garatuko diren proiektuen berri emango da.

TALDE ARGAZKIA

1998an eta 2008an egin bezala, 2018an ere Euskal Birusa Euskara Elkartearen talde argazkia egingo da. Argazkia maiatzaren 27an aterako da, Ermuan Bagara egitasmoaren barruan, 14:00etan (bazkaldu aurretik) Plazan. Elkarteko bazkideez gain, herriko euskaltzale guztiak daude argazkian ateratzera gonbidatuta.

**ERMUAN KANTUAN
EGITASMOAN PARTE
HARTZEKO
GONBIDAPENA**

Maiatzaren azkeneko astean euskara nagusituko da eta hainbat ekin-tza egingo dira euskararen erabilpena sustatzeko. Tartean, hilaren 27an, Ermuan Kantuan egitasmoa egingo da 13:00etan Plazan eta ordu eta erdiko kalejira egingo da herriko kaleetan. Hori dela-eta, ekimenaren arduradunek bertan parte hartzeko gonbidapena luzatu dute.

**Bookcrossing, euskarazko 47 liburu Ermuko
kaleetan solte**

Euskal Birusa Euskara Elkartek eta Ermuko Udal Liburutegiak Bookcrossing egitasmoa jarri dute martxan maiatzaren 31ra arte. Euskarazko 47 liburu askatu dituzte Ermuko kaleetan (geltokian, plazan, txokoetan...), nahi duenak hartu eta irakurtzeko. Ekimenaren izena daraman plastikozko poltsa baten barruan joango dira liburuak eta egitasmoaren azalpena dago bertan idatzita. 'Irakurri, Gozatu eta Oparitu' proiektuaren barruan kokatzen den egitasmoa da eta mota guztietako liburuak askatuko dira: haurrentzako liburuak, poemak, eleberriak, eta abar.

Liburua kalean hartzen duen bakoitzak liburua irakurri, fitxa bete eta liburutegira itzuli dezake. Partehartzaileek herriko dendetan euskarazko liburuak erosteko %35eko deskontu-txekea lortuko dute, ekainaren 15era arte erabili ahal izango direnak. Gainera, kanpainen parte hartzen dutenen artean 30 euroko txekoa zozketatuko da hileroko.

**Gure Esku Dago-ren giza-katea pasako da
Ermutik ekainaren 10en**

'Eman eskua etorkizunari' lelopean burutuko da aurtengo giza katea ekainaren 10ean eguerdiko 12.00-12.30. Donostia-Bilbo-Gasteiz hiriburuak lotuko dituen 100.000 pertsonaz osaturiko katea lortzea izango da erronka. Oraingoan Ermutik pasatuko da eta 2km izango ditu gure herriak, helburua 500 pertsonaz osaturiko kilometroko katea osatzea izango da eta 2. kilometroa Ondarruk beteko du Areitio eta Sallabenteko biribilguneak lotuz.

Parte hartzeko, zapatu eguerdian izena emateko aukera izango du nahi duenak Patxi plazan. Norbanako bakoitzak bere datuak eman beharko ditu taldeak daukan esku orrietan eta 5 euroren truke zapi bat jasoko da egunean bertan eramateko (pertsone-zapia-pertsone).

GED lan taldeak parte-hartzeko gonbitea luzatzen dio Ermua herriari. "Egun hori zoragarria izateko lan asko dago burutzeko oraindik, bai aurreko egunetan eta baita egunean bertan ere, denok eman behar dugu zerbait gutxi batzuk dena eman behar ez dezaten", adierazi du plataformak. "Animatu eta parte hartu! Eman eskua etorkizunari!".

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



optika

ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK

✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

Motorren gaineko pasio goiztiarra

Zazpi eta zortzi urte besterik ez dituzte, baina ia jaiotzetik daukate motorrekiko pasioa. June Lopez, Markel Pereiro, Aiur Areitio eta Hugo Jimenezek asko gozaten dute bi gurgipen gainean eta abilezia handiz meneratzen dituzte motorrak lurrezko zirkuituetan. Gainera, umeez “talde polita” osatzen dutela diote gurasoek. Izan ere, hori da garrantzitsuena eurentzat, haien seme-alabek ondo pasatu eta gozatzea.

Aiurren aitak, Xubanek, betidanik izan du motorrekiko zaletasuna eta bere pasioa heredatu du semeak. “Hiru urte bete baino lehenago motor elektriko bat ekarri zion Olentzerok”, azaltzen digu Xubanek, “bizikletan ibiltzen ikasi baino lehen”. Madriilen ikastaro bat egin zuen Aiurrek eta bere afizioa hazten joan zen. Umea bera ere hazi egin zen eta, aitaren esanetan, “gorputzak gasolina eskatzen zion”. 50 zentimetro kubikoko (zk) motor automatikoa erosi zuen eta gero beste motor hobego bat. Ikastarotik ikastarora bere maila hobetu zuen Aiurrek eta 65zk-ko eskuzko aldaketadun motorra dauka orain.

Aiurren antzera hasi zen June, baina pixka bat beranduago, bost urterekin. “Bateriazko motorra eduki zuen lehenik”, dio Topok, bere aitak, “eta gero 50zk-ra eta 65era egin zuen jauzia”. Topori ere beti gustatu izan zaio motorren mundua, baina bera jaitziera-bizikletan aritzen zen. “Juneri pedalei

eragin gabe aurrera egitea gustatzen zitzaion”, dio Topok barrezka. “Motorrarekin emozionatuta dago eta ibiltzera joan ezin garenean haserretu egiten da”. Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen dira, berezitasunik gabe.

Entrenatzen eta lehiatzen

Xubanen gurasoek base-ria daukate eta zirkuitu bat prestatu dute bertan umek motorrean ibiltzeko. Han entrenatzen dute eguraldi ona dagoenean eta hainbat lasterketa ere antolatu dituzte. “Hemen motokrosean ibiltzeko arazoetako bat eguraldia da. Bi edo hiru orduko bidaia egin behar dugu zirkuitu egoki batean ibiltzeko”, dio Xubanek. Bestela, ahal dela, baserriko zirkuituan ibiltzen dira, baina ez da gauza bera.

Umeez osatzen duten taldea aparta dela aipatzen dute gurasoek. “Batak bestea animatzen du eta, entrenatu eta gero, elkarrekin jolasten dute”. Talde moduan aritze hori da gako



gurasoentzat, batak bestea ziztatzeko duelako. Taldeak izena ere badauka: Eitzaga Xtrem.

Motokrosean hainbat maila daude lehiatzeko orduan, zentimetro kubikoen arabera. Zirkuitu batean lehiatzen dira eta hainbat buelta ematen dituzte bertan. Auzoetako lasterketetan aritu dira, eta baita hainbat cross country eta Enduro txapelketetan ere. Ordubeteko erresistentzia lasterketa da cross country, adibidez.

Euskadi, Gaztela-Mantxa eta Nafarroako motokros txapelketetan lehiatzen dira Eitzaga Xtrem taldeko kide gazteak, eta poliki-poliki aurrerapausoak ematen ari dira. Xubanek adierazi digunez, Espainiako Txapelketan ibili berri da Aiur. “Ez zen ondo irten, baina ikasteko balio izan du”.

Segurtasuna nagusi

Kirol arriskutsua dela airtortzen dute gurasoek, baina euren seme-alabek guztiz modu seguruan korritzen dutela azpimarratzen dute. “Ekipamendua, jantziak, kaskoa eta segurtasunerako hartu behar diren neurrien garrantzia erakusten dizute lehendabizi ikastaroetan”, dio Xubanek. Gainera, kirol honek umeei ematen dien disziplina goraipatu du. “Zirkuitu batean ibili behar dira eta hainbat gauza hartu behar dituzte kontuan ibili aurretik”. Zentzu horretan, euren seme-alabek segurtasunaren kontzientzia barnerratu daukatela diote. “Ikastaroetan asko ikasi dute. Nire alabak, adibidez, bizikleta hartzen badu, berehala jantzen ditu guanteak eta kaskoa”, esan digu Topok. Ermuko gaztetxo hauek disziplinaz eta gozamenek ekiten diote euren pasioari.

Ekhi Velar



SANTOS VEGA CARRASCO

(2018ko apirilaren 13an)

EUSKAL BIRUSEKO LAN TALDEA




Esperimentuen txokoa

H.H koak aurten ere esperimentu txokoa zabaldu dugu!! Baina nobedade batekin: familien inplikazioarekin.

Oso esperientzia polita eta aberatsa izanda da irakasle, ume eta parte hartu duten gurasoentzako.

Lehenengo esperimentuarekin, "Elektrizitate estatikoa" begi bistaratzera lortu genuen: umeek puxikak puztu, artilean igurtzi eta lumak, fideoak eta paper zatiak dantzatzen ipini zituzten, baita beraien ileak ere.

Hauek bai ikertzaile onak!!!



Eureka museora bisita

Mallabiko Learreta Markina eskolako Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak martxoaren 16an Donostiako Eureka museoa bisitatzera joan ziren. Han dagoen erakusketa ikusi ondoren, simulagailuan ibili eta animalien inguruko hainbat tailerretan parte hartu zuten.



Bisita aberasgarria eta bikaina izan zen. Ikasteko eta primeran pasatzeko aukera ederra!

Martxoak 8

Martxoak 8an, urtero lez, emakumearen presentzia ikustaraztea da gure helburua, horretarako aurten gertuen ditugun emakumeak bistaratu ditugu GURE AMAK PROTAGONISTAK lelopean eta martxoan zehar eskolan erakusketa bat egin da.

Arratsaldean 3.zikloko ikasleak, ERRE ZENITUZTEN kantaren dantza eskaini ziguten frontoian





LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44



Zuri egokitzen den odontologia
La odontología que se adapta a ti

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI tit. nº 1284

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

☎ 943 17 04 04
✉ info@clinasanpelayo.com
📍 San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)

OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!!

♿ **Egokitutako burua garbitzeko konketa**

943 17 28 09 • Goienkale 12



SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305



KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56



Diputazio, 5
ERMUA

Ertzak (boterearen garaipena beti porrot bat da)

Negu luze honetako aste-buru bateko arratsalde batean, etxeko teknologiko gailu guztiak albo batera laga eta marrazki bat elkarrekin koloreztatzen ari ginela, gure seme-alabek oso ondo margotzen genuela esan ziguten. Nik galdetu nien ea zergatik uste zuten ondo margotzen genuela. "Ertzetatik ateratzen ez zaretelako", izan zen haien erantzuna. Hasieran ertzetatik irten barik margotzeko trukoren bat erakusteko tentazioa izan nuen, baina bi aldiz pentsatu eta gero, azkenean beraien margotzeko modua gurea baino gehiago gustatzen zitzaidala esan nien.

Horrela, marrazkia koloreztatzen jarraitu zuten, energia, marretatik irtetzeko beldur barik. Koloretako arkatza esku artean, nik koloreztatutako ma-

rrazkia begiratu nuen eta konturatu nintzen ez zeukala ezer bezirik, ez zuela inolako nortasunik, esku domestikatu batek egindako lana zela, besterik ez. Estandarra. Makina batek egin zezakeena. Aldiz, beraien marrazkia bakarra zen. Beldurrik gabe marraztean, ezarritako ereduak gainditzean, sorkuntzaren bidea aukeratu zuten.

Txikitatik ikasten dugu marretatik ez irtetzea dela ondo egitea eta horrek eragin zuzena du erakitzen dugun gizartean. Gure gizartearen egungo ereduak aldatzeko mugimenduren bat egiten duenak zigorra jasotzen baitu. Deserosoa egiten zaio botereari edozein egitura aldatzeko ahalegina, aldaketak beti direlako zailak, baina bereziki ondo erakutsi digutelako txikitatik nahi dugun kolorea aukeratu dezakegula



Tabi Vidal

marrazkia koloreztatzeko, beti ere ertzetatik ez irtetzeko baldintzarekin.

Gogora etortzen zaizkit Kataluniako urriaren 1eko irudiak, eta oraindik itxaropena dagoelakoan nago, oraindik badira ertzetatik irteten diren batzuk eta irudimena erabiliz boterea gainditzen dutenak. Gure esku dago zelan jarraitu marrazten, ertzetatik atera gabe edo ertzetatik kanpo. Ekainaren 10ean beste urrats bat eman dezakegu gure marrazkia ertzetatik kanpo marrazteko.

“ Beldurrik gabe marraztean,
ezarritako ereduak gainditzean,
sorkuntzaren bidea aukeratu zuten ”

arral97.com
arral

Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- Nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

Udal Euskaltegia

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

Hamburguesería
TITANIC

Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

IZASKUN TXURRUKA

Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

MALLABIA 1981-82

Argazki hau 1981-1982 ingurukoa da. Mallabiko Gazte Alai dantza taldea agertzen da frontoetik irtetzen. Bertan agertzen dira besteak beste: Manu eta Belen Riaño, Tere Garcia, Nerea Azpitarte, Ruben Markina, Berna Berriozabalgoitia eta Martxel Garitagoitia.



ERMUA 1958



Nico Lizundia eta Jesus Mari Elgea, eliza parean Lambretta dotore baten gainean. Pilotan profesional mailan jokatu zuten biak ala biak. Argazkiaren atzeko aldea da albokoa, urte batzuk berandua-go Jesus Marik egunkari amerikar batetik moztutako kirol aipamena: Valentin Careaga eta Alex eta Miguel Solozabal anaien gainekoa, eskarmentu handiko 3 zestolari handi. Alexen abiadura eta zehaztasuna gorai patzen dute, Miguelen abiaduraz aparte, indarra eta trebetasuna, eta Valentin zesta modalitatean onenatariko bezala izendatzen dute.

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA



Proba-Leku
Hezpaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42



Apirilaren 8an
Zorionak Eider zure bederatzigarren urtebetetzean!! Askok disfrutatu. Muxu handi bat familia osoaren partez!!



Martxoaren 26an
Zorionak Julen!! 9 urte!! Etxekoen partez maiatasunez!!



Apirilaren 19an
Zorionak Diana!!! Ondo pasa zure urtebetetzean. Muxu handi bat Lucía eta aitaxoren partez. Maite zaitugu.



Apirilaren 15ean
Zorionak Aritz!!! Ondo pasa zure urtebetetzean. Muxu handi bat Lucía, Diana eta osaba Oscarren partez. Aupa zu!!!



Apirilaren 26an
Zorionak Vane! Etxeko danon partez munduko ama onenari! Ander, Mikel eta aitaren partez muxu eta besarkada handi bat! Askok maite zaitugu!!!



Apirilaren 18an
Zorionak Luken!! Muxu haundi bat etxeko guztion partez!



Maiatzaren 1ean 3 urte betetzen ditu gure etxeko sorgintxoak. Zorionak ANE etxeko guztion partez!! Muxu handi handi bat!!



Maiatzaren 5ean
Zorionak txapeldun!! Unai eta Mikelen partez!!!



Apirilaren 26an
Zorionak zure 9. Urtebetetzean!! Maite zaituztegu.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua:
drogeten@gmail.com

Gogoratu zoriondu nahi duzuenaren izen-abizena idaztea ere.

Azken eguna: **Maiatzaren 16a.**



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00



943 170474



ileapaindegia

Silvia

peluquería



688819336

ZINEA

5tik 7ra:

"El aviso" + "Gringo, se busca vivo o muerto"

12tik 14ra:

"Ready Player One" + "Un sol interior"

19tik 21era:

"La casa torcida" + "Bailando la vida"

26etik 28ra:

"Un lugar tranquilo" + "Handia"

Ermua Antzokian.
Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 3:

"Alma Mater"

Hilak 10:

"La casa junto al mar"

Hilak 17:

"Thelma"

Hilak 24:

"El Cairo Confidential"

Hilak 31:

"Invitación de boda"

Ermua Antzokian.
20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 6:

"El hijo de Bigfoot"

Hilak 13:

"Rabbit School: guardianas de huevos de oro"

Hilak 20:

"El príncipe encantador"

Hilak 27:

"Leo Da Vinci: Mona Lisa misioa"

Ermua Antzokian.
17:00etan.

MUSIKA

Hilak 12:

Abesbatzen kontzertua: Debarareneko orfeoia eta Pispillu Abesbatza.

20:30ean. Santiago elizan.

Hilak 19:

Vértigo Rock: Def Con Dos, Parabellum, Rude Pride, Blowfuse, The Wizzards, Violets, Bellako, We Are Apes Hello eta The Rockos.

16:30etatik. Betiondoko aparkalekuan. Sarrera dohainik.

Hilak 24:

Kontzertua: Silvia Palumbo. 19:30ean. Lobiano Kulturgunean. Sarrera dohainik

Hilak 25:

"Dudas razonables", Banarte Antzerki taldearen eskutik. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 4,11,18 eta 25:

Haurrentzako jokoak: Barixakuetan. 17:00etan. Orbe kardenalaren plazan.

ANTZERKIA

Hilak 4:

"Ergela", Txalo Produzioen eskutik. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€

Hilak 11:

"Amour", Marie de Jongh taldearen eskutik. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 8€

Hilak 18:

"Cuadros de amor y humor al fresco", Ikasten taldearen eskutik. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 8 €

BESTELAKOAK

Hilak 5:

Kulturenarteko jaialdia: hainbat ekitaldi. 11:00etatik. Orbe kardenalaren plazan.

Hilaren 7tik 13ra:

Galiaziako letreei buruzko jardunaldiak: hainbat ekitaldi. Orbe kardenalaren plazan eta Galiziako Zentroan.

Hilaren 17tik 20ra:

Euskal liburu eta disko azoka: hainbat ekitaldi. Orbe kardenalaren plazan.

Hilak 19:

Gaua irekia: hainbat ekitaldi. 22:00etatik. Hainbat lekutan.

Hilaren 25etik 27ra:

Ermuan bagara: hainbat ekitaldi. Orbe kardenalaren plazan, Ermua Antzokian eta abarreko lekuetan.

Patxi López



**TXINDURRI
TALDEA**
Tokian
tokiko

PRO
arraindegia



**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

Infreñu
Taberna



Kardena Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com



**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Eibarko La Salle Azitain

**Artezko
Batxilergoa**

**Giza eta Gizarte
Zientzietako
Batxilergoa**



**Zientzietako
Batxilergoa**

**ZATOZ
GUREKIN**

Aurrematrikula zabalik maiatzaren 2tik 14ra



ICT-n heldutasun-maila
AURRERATUA duen ikastetxe
Centro acreditado en el nivel
AVANZADO de madurez TIC

www.lasalleeeibar.com
emaila: azitain@lasalle.es
Tel: 943121698

Udako Eskaintza 2018



aek udako plazer txikiak ADI GAZTE!

EKAINEKO ESKAINTZA BEREZIA

aek

euskara praktikoa



EUSKALTEGIAK

IKASTARO TRINKOAK
Azterketak prestatzeko
ONLINE IKASTAROAK ERE BAI!



2 ASTEKO BARNETEGIAK

EUSKARA ESKOLAK
EUSKARAZ BIZITZEKO
AZTERKETAK PRESTATZEKO



FAMILIA BARNETEGIAK

EUSKARA IKASTEKO
SEME-ALABEKIN EUSKARAZ ARITZEKO




BARNETEGI IBILTARIAK

OINEZ ZEIN BIZIKLETAZ
MINTZAPRAKTIKA EGITEKO

udabarnetegiak@aek.eus
673 200 100 · 946 464 000

www.aek.eus



Euskara ikastaroak

KALTXANGO AEK EUSKALTEGIA

2018ko EKAINA

DBH 4 ETA BATXILLERREKO IKASLEENTZAT

Ekainaren 4tik 29ra edo Ekainaren 11tik uztailaren 6ra

(izena emateko azken eguna, maiatzaren 29a)

4 orduko ikastaroak · Goizez zein arratsaldez

B2 eta C1(EGA) mailako azterketak prestatzeko ikastaroak

Euskara hobetzeko ikastaroa (hobekuntza)

AZTERKETAK URRIAN: B2/C1 Maila

Entzumeneko eta irakurmeneko probak: urrian

Idazmeneko probak: azaroan

Mintzameneko probak: azaroan

Diruz lagunduak

EUSKALTEGI HOMOLOGATUA

Bizkaia etorbidea 13, behea · 943 17 19 40 · kaltxango@aek.eus

